

Maribi Ugarteburu

Udalbiltzako auzipetua

«Erridikulu handia ari dira egiten, baina hori auzitegiko salan geratzen da»

Amorotoko alkate izan zen Maribi Ugarteburu 1999tik 2004ra. Baltasar Garzónek auzipetu egin zuen Udalbiltzaren kontra 2003an hasitako operazioaren barruan. Egunotan Auzitegi Nazionalean epaitzen ari dira beste 21 lagunekin. Lanbidez kazetaria da.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

GOIOGANE BASERRIAN sukaldeko ekonomiak berotzen du negua, Lekeitiotik datorren itsasoko haizeak freskatzen uda. Maribi Ugarteburuk (Amoroto, 1968) etxean igaro ditu egun sargoriok, bertako bakea ahalik eta gehien arnasten. Gutxi barru Madril zaratatsura itzuliko da, Auzitegi Nazionalera, fiskalari esplikatzera Udalbiltza ez dela ETA: “Jendeak dirua musutruk jartzen zuen lagundu nahi zuelako, ez duzu ulertzen ala?”

Argudio guztiz nobeleskoak erabili dituzte”. Zure hitzak dira, aldizkari honi esanak Udalbiltzaren kontrako operazioa gertatu eta gutxira. Zazpi urte pasa dira eta nobela ez da bukatu.

Eta amaiera jakinik gabeko nobela izaten jarraitzen du, hori da txarre-na. Egoera politikoaren arabera, haizearen arabera, izango du amaiera. Autoa behin bakarrik irakurri nuen, berriro ez diot heldu *katxarro* horri, baina lehen esaldian jartzen du tesia, eta ezin duzu sinestu: “Udalbiltza-Kursaal ETA-Ekinen tresna bat da”, baieztapen horrekin hasten da. Ondorengo guztia hori frogatzen ez duen gauza inkon-





“PSEko ordezkariak esan digute alderdi barruan badagoela horrelako auzi politikoak bertan behera uztearen aldeko jarrera zabala, nahiz eta bistaratzen ez utzi”.

gruente bat da; gure jarduerak delituaren froga balira bezala hartzen ditu: EHNA tramitatu izana, Etxepare Lizeoari lagundu izana... Ez dauka ez hanka eta ez bururik.

Zazpi urte, urte asko dira, denbora horretan epaiketaren itzala atzean edukitzeak nola eragiten du egunero-ko bizitzan?

Ohitu egiten zara, edo uste duzu ohitzen zarela, ez duzulako beste erremediorik. Baina oso gogorra da, ezin duzu epe luzerako planik egin. Pentsa, 2007an egin zuen zigor eskaria fiskaltzak eta epaiketa berehala etorriko zelakoan geuden. Harrez gero hiru urte pasa dira eta denbora horretan uneoro izan gara tentsioan: “Hurrengo hilean izango da, ez, hurrengoan...”.

Hainbeste auzipetu izanda, egoera oso ezberdinak biziko dira zuon artean, ezta?

Bai, pertsona bakoitza mundu bat da. Hasteko, gutako bat kartzelan dago jada; Udalbiltzako langile izandakoak ere hor daude, erabakirik hartu ezin eta hala ere kartzelan sartu zituzten; bestetik, seme-alabak ditugunok asko gara, haurtzaindegi bat muntatu dezakegu nahi izanez gero... Ez da berdina batzuek eta besteek izan dezaketen ikuspegia.

Udalbiltza auziak antzekotasun handia du Egunkaria auziarekin: izaera, akusatzeko modua... Egunkariaren kasuan fiskalak ez zuen akusatu, baina zuenean bai. Nola uler liteke jarrera aldrebes hori?

Politika da, politikaren alde maltzurrena. Gu peoitxo batzuk gara, Euskal Herriko gatazka deitzen den joko taula zail, konplikatu eta mingarri horretan. Nire iritzia da Udalbiltzak baduela osagai politiko oso garrantzitsua: nazio izaera ordezkatzan du, eskubide subjektuaren kontua mahai gainean jartzen du. Bere bizitza labur eta korapilatsuan, Udalbiltzak seguruena egin zezakeen hobeto, baina demostratu zuen posible zela gauzak egitea, eta horrek karga politiko handia du Estatuarentzat. Akusazioaren galderetan badaude batzuk oso kuriosoak: “Zuek zer nahi zenuten muntatu, Estatu paralelo bat?” Bada bai, nahiko genuke Estatu bat izan, baina ez paraleloa. Orduan, zergatik mantentzen duen fiskalak eskaria?

“Automatismorik ez dago. Egunkaria auzikoak libre geratu izanak ez du esan nahi gurekin berdin egingo dutenik”

Pultsu politiko bat delako, baina oso zaila da jakitea azpian zer presio eta iritzi dauden.

Dena den, Egunkariako sententzia absolutorioa aurrekari positibotzat duzue.

Sententzia mamitsua da eta epaileak ez zuen zertan hainbeste busti: tortura aipamenen kasuan, eta guretzat interesgarriena dena, indukzioa atzekoz aurrera egin zela esatean—gurean ere hala delako—. Sententzia atera zenean ikusi genuen argia zegoela tunelaren beste aldean. Baina automatismorik ez dago, Egunkariok libre geratu izanak ez du esan nahi gurekin berdin egingo dutenik. Lasaitzeko tentazioa askok eduki du... baina lasai? Nola egongo naiz lasai Auzitegi Nazionalarekin?

Udalbiltzaren kontrako operazioa, besteak beste, hauteskunde plataformak ilegalizatzeko erabili zuten Aznarren garaian. Testuinguru hori aspaldi pasa zen arren, auzia epaiketara iritsi da.

Auzitegiko instantzien aldetik badaogo halako setakeria bat, hasitakoa bukatu arte mantentzeko. Gu bildu izan gara PSEko ordezkari batzuekin eta askotan esan diegu: “Aznarrek bere gehiengo absolutuarekin hasitako bidetari segitzen duzue hauspoa ematen”. Beraien erantzuna beti izan da justizian konfidantza eduki behar dugula, eta kito. Auziak orain ez du zentzurik, zentzua 2003ko testuinguruan izan zuen, urte ikaragarri bat. Pultsu totala gertatu zen eta gure kasua baliatu zuten jokaldi berarekin Udalbiltzaren kontra egin eta plataformak ilegalizatzeko. Baina gezur bat erabili zuten horretarako: esan zuten gu ibili ginela hautes-zerrendak egiten. Gu ez ginen horretan ibili eta hori beraiek badakite.

Behin hasierako helburua beteta, ematen du patata bero bat geratu zaiela auzitegian, ez atzera ez aurrera...

Bai, eta hori epaiketaren zehar ikusten ari gara. Gu ez gara neutralak, baina behatzaile bezala joan direnak harrituta daude akusazioak erakutsi duen ahultasunarekin eta agerian geratzen ari den ezerezarekin. Ez



“Gu peoitxo batzuk gara Euskal Herriko gatazka deitzen zaion joko taula zail, konplikatu eta mingarri honetan”.

baitago ezer. Erridikulu handia egiten ari dira, baina noski, hori sala horretan geratzen da.

Eta horrek zer aho-zapore utzi dizue?

Entzunda nuen zirku bat zela, baina ez dakit nola esan... sentitzen zara erabilia, 21 pertsonen bizitza dagoela aurrean dituzun horien esku, eta sentsazioa oso arraroa da. Dena den, lehen egunetako deklarazioekin oso pozik geratu ginen, beraiek entzun nahi zutena baina dezente gehiago kontatu baikenien.

Bazegoen estufefakzio puntu bat beraian, buruan beste pelikula bat dutelako.

Akusazioaren galderei ez erantzutea erabaki duzue. Zergatik?

Batetik, ez dugulako onartzen fiskalak egiten duen planteamendua, gezurrez josia, gu horri pentsua ematera ez goaz. Baina arrazoi praktiko batengatik ere bai. Epai- ketan kronometratu egin genuen: soilik galderak leitzen hamazazpi minutu egin zituen fiskalak. Lehen

galderan fresko zaude, hamargarrenean ere bai, baina laurogeita hamabosgarrenean hasten dira zalantzak, pentsatzen ez duzun zerbait esan eta kontraesanen eror zaitezke... Ez gara joko horretan sartuko.

Epaileen jarrera zein izan da orain artekoan? Gomez Bermudez da buru.

Broma gutxi berarekin. Hitz egiten utzi digu, ez digu moztu, eta hori eskertzekoa da, nahiz eta epaileak berez hori egin behar lukeen. Baina



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



“Txip aldaketa ematen ari da, mediatismotik harago”

“Ukaezina da denbora kontua dela. Borondate politiko asko ari da batzen, akaso polikiegi, baina oinarrizko gai batzuen inguruan batzen ari dira: demokrazia arauak errespetatu beharra, oinarrizko eskubide guzti-guztiak errespetatu beharra, aukera politiko guztiek eduki behar dutela eskubidea plazan egoteko... Horrelako kontuetan ari dira batzen borondateak eta hori ez da bi egunetako kontua, ez da kanpaina bat, ez dauka zerikusirik hauteskundeekin, ezta soilik distentsio armatuko egoerekin ere, harantzago doan kontzeptua da.

Orain, berehalakoan, nik ez dakit zer gertatuko den, elkarrizketa politikoak taxuz eta ganoraz aurrera aterako ote diren; eta xake taula honetan gure auziarekin zer gertatuko den ere ez dakit. Baina epe luze-
ra begira bai, txip aldaketa bat ematen ari da, mediatismotik harago doana. Eskubide zibil eta politikoaren inguruan —norbanakoak nahiz kolektiboak— pentsatzeko modu bat lantzen ari gara apurka-apurka, eta denbora eta talentua horren alde jarri behar da. Nik horretan daukat itxaropena.”.



begira Angela Murillo. Oraindik gogoan dut nola jokatu zuen 18/98ko epaiketan Jose Luis Elkororekin: 70 urte pasata, berak duen historiala eta lasaitasuna... hasi zerbait kontatzen eta “usted callese!” esan zion.

**Datorren astean hasiko da epaiketa-
ren hurrengo fasea, lekukotza gehi-
go eta perituen deklarazioekin. Zer
etorriko da?**

Dokumentazio mailan hain agerikoa da ez dagoela ezer. EHNA tramitatzeko paperak, bileren aktak... Zer egin behar dute horrekin? Ez dugu kezka handirik. Hortik aurrera, gure lekukoen deklarazioa Udalbiltzaren isla polit bat izatea nahi genuke. Baina 140 lekukotik 21 bakarrik onartu dizkigute eta horietatik batzuk jada adierazi dute Madrilera joateko ezintasuna, azken batean urte asko pasa dira.

Epaiketa hurbildu ahala babes zabala jaso duzue gizarte eragile eta alderdiengandik. Espero al zenuten?

Klabea izan da zain ez geratzea. Baina lehen momentutik lan horrek erantzun ona izan du. Alde batetik, 60 eragile sozialen atxikimendua

jaso dugu, arlo guztietako jende oso ezberdina dago horien atzean. Bestetik, PP salbu, gainerako alderdi guztiekin eduki dugu harremana, baita PSE eta PSNko hainbat ordezkarekin ere. Azkeneko hauek adierazi digutena da, nahiz eta bistaraten utzi ez, alderdi barruan bada-goela Udalbiltza bezalako auzi politikoak bertan behera uztearen aldeko jarrera zabala, zuzendaritzak konpartitu ez arren.

Eta espero ez zen isiltasunik izan al da? Instituzioen aldetik, adibidez?

Isiltasun instituzionala bai egon dela. 2008an Gasteizko Legebiltzar-
rak ez legezko proposamena onartu zuen auzia salatze-
ko. Orain beste gehiengo faltsu bat dago eta ez Legebiltzar-
rak ezta Jaur-laritzak ere, ez dute ezer egin. Idoia Mendiaren

“Aurreko auzietan ere oso argi geratu da: sententziak ematen dira egoera politikoaren arabera. Gure auziarekin zere egingo duten? Auskalo”

hitz batzuk bakarrik entzun ditugu, esanez epaiketa zazpi urte atzera-tzea justiziaren kontzeptuaren kontra doala. Egia da, baina hori da esateko duzun guztia? Bada, hanka motz.

Giro politiko berezian gaude, bake prozesu bat hastear dela dirudi. Itxaropenerako bide ematen al dizue horrek?

Noski. Aurreko auzietan ere oso argi geratu da: sententziak ematen dira egoera politikoaren arabera. Adibide garbiena 18/98koa da. Epaiketa hasita zegoela, 2006ko su-etena eta elkarrizketak etorri ziren. Epailleak horrela esan omen zuen: “Orain zer egiten dugu hauekin?”. Baina hainbeste luzatu zuten epaiketa, tartean gauzak okertu zirela, eta saria izan zen gehienak barrura sartzea. Oraingo testuingurua hobea da, distenditua delako, baina maltzurra ere bada, Espainiako Estatua ari baita pieza ahulenekin estutzen, presoekin esaterako. PPren garaian baina gogorrago ari dira, ez bakarrik presoekin, baita senideekin ere. Gure auziarekin zer egingo duten? Auskalo, estutzeko edo lasaitzeko erabili. ■